



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo

**donostia** **UP!**  
san Sebastián

GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA BERRIKUNTZAREN SUSTAPENA 2016  
IMPULSO AL DESARROLLO ECONÓMICO Y LA INNOVACIÓN 2016  
PROMOTION OF ECONOMIC DEVELOPMENT AND INNOVATION 2016

## Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak gazteentzako 78 nazioartekotze-beka jarriko ditu abian.

Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren Donostia/San Sebastián UP! 2016 Planeko ekimena da euskal gazteei lan-mundura sarrera errazteko, haien trebakuntza hobetuz, atzerrian, gutxienez, sei hilabeteko praktika ordainduen bitartez. Jada, aktibo daude Eusko Jaurlaritza finantzatutako eta Donostiako Sustapenak kudeatutako 38 Global Training bekak. Uda ondoren irekiko da Donostiako Sustapenak eskaintzen dituen beste 40 beken deialdia.

Ekainak 23an, 12:30etan, Cemei eraikinean, **informazio-saioa** egingo da interesatuta dauden gazteek dituzten zalantzak argitzeko. Horretarako, aldeztatik izena ematea beharrezkoa izango da; izen-ematea Donostiako Sustapenaren web orriaren bitartez egin behar da.

Aktibatu diren lehenengo bekak **Global Training** nazioartekotze-bekak izan dira, **DonostiaUP!** Planaren baitan sartzen direnak, **30 urtetik beherako gazteen** artean enplegua sustatzeko eta langabezia-tasak murrizteko helburuarekin. Beken programa horrek merkatuan eta unibertsitateko titulazioa nahiz goi-mailako lanbide-heziketa duten gure gazteen eskuragarri mekanismo ahaltzu bat jartzen du, atzerrian, enpresetan eta erakundeetan, euren profil akademikoarekin eta lanbide-profilarekin lotutako jardueratan eta proiektuetan, gutxienez, sei hilabetez **praktika ordainduak** egiteko aukera eskainiko dietena.

**Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak Ernesto Gasco zinegotziak** beka multzo honekin “talentua itzultzeko eta enpresa-ehun donostiarrari laguntzeko konpromisoa ere hartzen dugula” azpimarratu nahi izan zuen. Ildo horretatik, lan-saioak antolatuko dira bekadunek, behin praktikaldia amaitutakoan, **“tokiko enprekin** merkatu atzeritarrei dagokienez **berenganatutako**



Hiri berritzailea  
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

**esperientzia** eta ezagutza konpartitzeko eta, horrela, lankidetzak berriak eta nazioarteko negozio-aukerak sustatu ahal izateko” azpimarratu zuen.

Enpresa eta erakunde atzerritarrek eskaintzen dituzten praktikek gazteei euren **lanbide-prestakuntza hobetzea** eta etorkizunari begira lan-mundura sarrera erraztuko dieten nazioarteko sareetan lanean hastea ahalbidetuko diete. Proiektuak anitzak dira –**merkatu-prospekzioak, marketin- eta komunikazio-funtzioak, turismoaren garapena, produktuaren eta teknologiaren garapena, I+G+B eta abar**– eta, baita, bilatzen diren profilak ere: ingeniariak; komunikazioetan, ekonomian, kimikan... lizentziatuak. Xede-herrialdeen artean honako hauek aurki ditzakegu: **AEB, Erresuma Batua, Ekuador, Hegoafrika, Argentina, India, Kanada, Polonia, Austria, Brasil, Haiti edo Alemania.**

Gazteek toki-, eskualde- edo lurralde-garapena ikuspegizat duten proiektuetan hartuko dute parte, Europako nahiz nazioarteko sareetan eta erakundeetan parte hartuko dutenetan edota Donostialdeko enpresen nazioartekotzea bultzatuko dutenetan. **Bekak, gutxienez, sei hilabeteko iraupena edukiko du eta hilean 1.359 euroko ekarpen ekonomikoa.** Eskatzen diren **baldintzak** honako hauek dira:

- Diplomaturako, lizentziaturako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulazioa edukitzea.
- 2015eko urtarrilak 1ean 30 urte beteta ez edukitzea.
- 2015eko urtarrilak 1ean, gutxienez, urtebete oso batean, etenik gabe, Donostian erroldatuta egotea.
- Atzerrian 6 hilabetetik gorako praktika-egonaldiak ahalbidetu dituen beste beka baten onuradun ez izana.
- Kasu guztietan, ingeles-maila handia edukitzea eta, baita, beharrezko irizten bazaio, xede-herrialdeko hizkuntzan ere. Horretarako, ahozko eta idatzizko proba bat egingo zaie, bekadun izateko hautagaien ezagutza-maila zehazteko.
- Praktikak egingo dituzteneko enpresak edo erakundeak eskatutako profilerak egokitzea.



Aurreko deialdian atzerrian praktikak egiteko beka eskuratu zuten pertsonen %55ak baino gehiagok lan-merkatuan sartzea lortu zuten.

Donostiako Sustapena - Global Training 2016-2017 beketarako izena emateko epea 2016/06/30era arte irekita egongo da. Izen-ematea [www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus) edota [www.globaltraining.eus](http://www.globaltraining.eus). web orrien bitartez egin behar da. Beharrezko dokumentazioa epe horren baitan entregatu beharko da paperezko euskarrian Donostiako Sustapenak Victoria Eugenia Eraikinean (Erregina Erregentearen kalea, 8, Donostia) duen jendearen arretarako bulegoan.

Uda ondoren, Donostiako Sustapenak gazte donostiarrentzako urtero abian jartzen dituen 40 nazioartekotze-bekak eskuratzeko epea irekiko da.



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus